


OLINPIAR JOKOAK

K.a. 776 urtean sortu ziren. Olinpia izeneko polis edo hirian asmatu ziren eta bertan jokatzen ziren 4 urterik behin, horregatik deitzen zaie olinpiar jolasak. Olinpiar jolasetara Greziako polisetako atleta hoberenak joaten ziren. Gizonezkoek baino ezin zuten parte hartu. Irabazlearentzako saria olibondozko koroa izaten zen. Joko olinpikoak oso garrantzitsuak ziren eta edozein guda edo borroka gelditu egiten zen olinpiar jolasak ospatzen ziren egunetan. Gaur egun ere ospatzen dira.



OLINPIAR JOKOAK



1. Non sortu ziren olinpiar jokoak?

.....

2. Zenbat urterik behin jokutzen ziren?

.....

3. Zein izaten zen irabazlearentzako saria?

.....

4. Nortzuk parte hartzen zuten jolasetan?

.....

